

MERCABILBAOK "ZILARREZKO ERRATZA" LORTU DU BERE GARBIKETA POLITIKAGATIK ETA INGURUMENAREKIKO KONPROMISOAGATIK

- Zilarrezko, Urrezko eta Platinozko 2010eko Lehiaketak hondakinen kudeaketan, garbiketan eta hiri-xahuketan izandako jokabide egokiak saritu eta sustatzen ditu
- Mercabilbao duela 22 urte sortu zen, eta lehiaketa honetan parte hartzen duen lehendabiziko handizkako merkatua da
- Mercabilbaon erabiltzen den fruta eta barazkietarako ontzi berrerabilgarria soluzio iraunkor eta mesedegarria da ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspegitik
- Lehiaketa hau TEM-TECMA 2010 Nazioarteko Hirigintza eta Ingurumen Azokaren barruan antolatzen da
- Mercabilbaorekin batera, Bilboko Udalak "platinozko erratza" jaso du hirugarren aldiz hondakinen kudeaketan eta hiriaren garbiketan egin duen lan bikainagatik

Basauri, 2010eko ekainak 11.- Mercabilbaok Zilarrezko Erratza lortu du ATEGRUS Hondakinak eta Ingurumena Kudeatzeko Elkarte Teknikoak antolatzen duen 'Zilarrezko, Urrezko eta Platinozko Erratzak' Lehiaketaren hamabigarren edizioan. TEM-TECMA 2010 Nazioarteko Hirigintza eta Ingurumen Azokako jardueren barruan antolatutako lehiaketa honen bidez, hondakinen kudeaketan eta hiri-garbiketan izandako jokabide egokiak bultzatu, saritu eta sustatu nahi dira, bai eta ingurumenaren kudeaketa iraunkorra erraztuko duten proiektu eta teknologien garapena ere.

Mercabilbao da golarde hau lortu duen lehendabiziko handizkako merkatua. Orain arte, Udalek, Aldundiek, Autonomia Erkidegoek, Zerbitzu-Enpresek, Ingeniaritza-Enpresek, Ingurumen-

Aholkulariek Ekipo-Ondasunen Fabrikatzaileek, hondakinen kudeaketarako eta hiri-garbiketarako Instalazioen Fabrikatzaileek, I+G+b alorrean diharduten Unibertsitateek eta Ingurumenaren esparruko Prestakuntza eta Kontzientzia-Kanpainak lantzen dituen sektoreak parte hartu izan dute lehiaketa honetan.

Mercabilbaok bi arrazoiengatik lortu du Zilarrezko Erratza: garbiketan eta hondakinen kudeaketan izandako jokabide egokiagatik eta hornidura-zentro osoan izandako garbitasun-maila onagatik. Jokabide hauek higienizazioaren bitartez bermatzen dira, eta fruta eta barazkiak garraiatu eta merkaturatzeko katean erabiltzen diren ontzien elikadura-segurtasuna areagotuz. Ontzi bateratu eta itzulgarriaren erabilera esperientzia aintzindaria izan da Estatu osoan Merkatu Nagusietako ontzi-kudeaketari dagokionez. Ontzi honek enpresaren gizarte-erantzukizunari dagozkion oinarrizko parametroak betetzen ditu, soluzio iraunkorra baita ingurumenaren ikuspegitik, eta mesedegarria prozesuan parte hartzen duten guztientzat: ekoizleak, handizkariak, txikizkariak, Mercabilbao bera eta honen eragin-eremuko herri eta hiriak. Iazko irailean, Handizkako Merkatuen Munduko Batasunak saria eman zien iraunkortasunaren aldeko Mercabilbaoren jokabideei ontzi berrerabilgarriaren erabileragatik.

Ingurumen-iraunkortasuna

Hauexek dira, besteak beste, ontzi berrerabilgarriaren abantailak:

- Plastikozko ontzi berrerabilgarrien bizitza-zikloak kartoiak baino askoz ere CO₂ kopuru txikiagoa sortzen du.
- Ontzi berrerabilgarriek eta zurezkoek antzeko inpaktua dute ingurumenaren gainean SO₂ren sorkuntzari dagokionez.

- Plastikozko ontzi berrerabilgarriak gainontzekoak baino askoz ere egokiagoak dira eutrofizazioa, udako kutsadura, azidifikazioa eta ozono-geruzako zuloari dagokienez.

Ingurumen-iraunkortasuna eta elikadura-segurtasuna bermatzen dituen esperientzia arrakastatsu hau abiatu ondoren, hurrengo pausoa, Mercabilbao saiakuntza-eremu gisa erabiltzea izango da, errealitate hau Estatuko gainerako Elikadura-Unitateetara hedatzeko asmoz. Horrez gain, aurrera jarraituko da garapen eta berrikuntza alorreko programekin, etorkizuneko erronkei baldintzarik egokienetan aurre egin ahal izateko.

Informazio gehiago:

Libe Romaña
El Bureau de la Comunicación
944 240 594//691429287
libe@elbureau.net